

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 4314

*99/2020 EBAZPENA, irailaren 21ekoa, Emergentziak Erakundeko zuzendari gerentearena, zeinaren bidez Aloña Ibarluzea Sarasola andrea Zuzendaritzako idazkari (Gipuzkoako Koordinazio Zentroan) izendatu den, izendapen askez, Osakidetzako Emergentziak erakundean.*

14/2020 Ebazpenaren bidez, Osakidetzako Emergentziak Erakundean Zuzendaritzako idazkari (Gipuzkoako Koordinazio Zentroan) lanpostu bat izendapen aske bidez betetzeko deialdia argitaratu zen.

Batzordeak baloratu egin ditu aurkeztutako eskabideak, eta dagokion izendapen-proposamena egin du. Horiek horrela, Aloña Ibarluzea Sarasola andreak dituen ezagutza akademiko eta profesionalak kontuan hartuta, erabaki da hura izendatzea, izendapen aske bidez, Osakidetzako Emergentziak Erakundeko Zuzendaritzako idazkari (Gipuzkoako Koordinazio Zentroan).

Beraz, bat etorritz Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua hiru garren arau komunarekin, Osakidetzaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuarekin eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuarekin

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Aloña Ibarluzea Sarasola andrea izendatzea Zuzendaritzako idazkari (Gipuzkoako Koordinazio Zentroan), Osakidetzako Emergentziak Erakundean.

Bigarrena.– Izendapen honek 2020ko irailaren 15etik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Izendapenak egin dituen organoak edozein unetan kargugabetu ditzake, bere eskumen-ahalez, izendapen askeko sistemaren bidez izendatu dituen langileak. Kargutik kentzeak edo mugiarazteak zera eragingo du: langilea beste postu funtzional batera lekualdatuko dela, baina, edonola ere, interesdunak duen kategoriari dagozkion baldintzei eutsiko diela. Hain zuzen, antzeko ezaugarriak dituen lanpostu bati atxikiko zaio eta, ahal dela, izendapena jaso aurretik bera zegoen antolakuntza- eta lurraldetasun-baldintza berberetan. Atxikipen horrek, hain zuzen, kargugabetze-dataren biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak, eta lanpostua betetzeko eskatzen diren betekizun eta baldintza guztiak bete beharko ditu.

Laugarrena.– Interesdunari eta Tolosaldeko ESIari Ebazpen honen berri ematea.

Bosgarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkez dakioke Osakidetzako zuzendari nagusiarri. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bilbao, 2020ko irailaren 21a.

Emergentziak Erakundeko zuzendari gerentea,  
OSCAR ALLER GARCIA.